Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

310

Urriak 1, 2017

Go!azenen errepikatuko du Asier Burguete aktoreak

Argazkia: Estudio Gover

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Adour-Bidasoa
4 Txingudi Bertso Eskola
5 Ezkontzen azoka
6-7 Gaztedi elkartea
8- Xabier Velasco arraunlariari elkarrizketa
9 Steve Bloomer txapelketa
11 Haurren leihoa
12 Gazteen lanak
13 Asier Burguete
14 Gazte informazioa
15 Agenda

TONPES KALEA

IUA G40802

1985eko urriaren 30eko Osoko Bilkuran jarri zioten izena, Luis de Uranzu Kultur Taldearen proposamenez. Urdanibia auzoan, Errotaundi ibilbideari hasiera ematen dio, Ugalde errekaren paraleloa da, eta ez du irteerarik.

Tonpes baserri desagertuari zegokion toponimoaren oroigarri jarri zioten izena, bide honen inguruan kokatzen baitzen baserria. Jatorri nobleko leinua da Tonpestarrena. Lope Martínez Isastik, 1625ean, Irun-Uranzu Unibertsitateko sortetxeen artean aipatu zuen. Lazaro Tompes irundarra Calatravako Ordeneko zalduna izan zen. Juan eta Pedro de Tompes soldaduak izan ziren, Errege Katolikoen aginduetara, XVI.mendean. Miguel Antonio Tompes, parrokiako apaiza izateaz gainera, Nafarroako Inkisizioko komisarioa izan zen.

Tonpesenea baserriari dagokionez, 1858ko ganadu aberastasunaren aitorpenean ikus daiteke baserri bereko hiru aitortzaile agertzen direla: Ignacio Urtizberea, bi idi, behi bat, txahal bat eta zekor bat zituena; Pedro Antonio Alberdi, bi idi, bi behi eta txahal bat zituena; eta Francisco Aginaga, behi bat eta txahal bat zituena. Estatistikari buruzko beste espediente batean (1857) jasotzen da 16 anega gari, 48 anega babarrun eta 16 karga sagardo ekoizten zituela.

Nicolás Madariaga arkitektoaren proiektua jarraituz 1973an eraikitako etxebizitza blokea ageri da argazkian.

Iturria: José Monje
Irungo kaleen izenak

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun
Ainara Berges

Euskara zuzentzilea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 2052

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Emakumeak dira aurtengo Adour-Bidasoa lehiaketako hiru irabazleak

Susana Ferreirak jaso du sari nagusia, eta bere ikaslea den Patricia Tabernak artista gaztearen saria

Ezaugarri bereziak eduki ditu Irungo Udalak antolatzen duen Adour-Bidasoa pintura lehiaketaren 26.edizioak. Hiru irabazleak emakumeak izan dira, eta horietako bi, irundarrak, irakasle-ikasleak, gainera. Susana Ferreirak eskuratu du sari nagusia, eta Patricia Taberna ikasleak artista gaztearen saria. Epaimahaiaren sari berezia Ana Salegi donostiarrak irabazi du. Haien lanak Amaia Kultur Zentroan jarri duten erakusketan ikus daitezke, beste 21 lanekin batera, urriaren 15era arte.

Erakusketaren interesa azpimarratu du, hain zuzen ere, Juncal Eizaguirre Irungo Udaleko Kultura arloko ordezkariak: "Teknika eta estilo ezberdinekin gozatu daiteke. Iruditzen zait publikoarentzat oso erakusketa interesgarria dela". 24 obra aukeratu dituzte, lehiaketara aurkeztu dituzten 53 margolanen artean. Azken urteetan baino apalagoa izan da parte hartzea. Nibela, ordea, gero eta orekatuagoa dela nabarmendu du Helena Elbusto epaimahaiko kideak: "Finalisten arteko aldea oso-oso txikia da. Lehenengoa bigarren izan zitekeen, eta hirugarrena irabazle".

Elbustoz gainera, Javier Sagarzazu, Arantxa Albisu, Iñaki Moreno, Edorta Kortadi eta Mari José Aranzasti aritu dira epaile lanean. "Ez ditugu egileen izenak ikusten, baina egia da, parte hartzaile batzuen estiloak identifikatzen ditugula, jada", onartu du Elbustok. Urtetan parte hartu

"Ez ditugu egileen izenak ikusten, baina egia da, parte hartzaile batzuen estiloak identifikatzen ditugula"

Helena Elbusto, epaimahaiko kidea

izan du Susana Ferreira irabazleak, hain zuzen ere. Aurten, alabaina, norabide aldaketa izan du bere lanak. "Gaur egun material ezberdinak erabiltzen ditut, lebadura gehiago etab. Baina arkitektoa naiz formazioz, eta jatorrian, lan errealistagoak eta arkitektonikoagoak egiten nituen".

Txingudi Ikastolako Lehen Hezkuntzako eraikin zuriko korridore bat irudikatu du Ferreirak, estilo errealistan. Txingudi Ikastola izenburua jarri dio, gainera, zalantzarik egon ez dadin. "Lekua ezagutu du jendeak. Paisaiek arrakasta handiagoa izaten dute, beharbada, baina koadroa errealista da, eta hori atsegin du jendeak", azaldu du Ferreirak. Aspaldiko helburua bete du, Adour-Bidasoa lehiaketa irabazita: "Pinturan nuen helburu handiena zen. Badakit ez zela anbizio handikoa, lehiaketa garrantzitsuagoak daude. Baina niretzat, bizilagunen aitortza jasotzea oso pozgarria da".

Pintura irakaslea da Susana Ferreira, eta Patricia Taberna du ikasle, hain zuzen ere. Artista gaztearen saria irabazi du, Thai inspirations izenburua duen obrarekin. "Oso harro nago bere sariarekin", aipatu du Ferreirak: "Merezi du, oso langilea delako". Epaimahaiaren sari berezia Ana Salegi donostiarrak lortu du, La Captura margolanarekin. Bestalde, bost diploma banatu ditu epaimahaiak. Ondorengo artistek jaso dituzte: Verónica Bueno (Ciudad Real), Judas Arrieta (Hondarribia), Francisco Escalera (Córdoba), Melchor Balsera (Badajoz), Markeliñe Arana (Donostia).

"Koadroa errealista da, eta hori atsegin du jendeak"

Susana Ferreira, sari nagusiaren irabazlea

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11 IRUN 943.61.54.57
TABISA TANATORIO DEL BIDASOA
San Pedro kalea, 49 HONDARRIBIA 943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Abian da bertso ikasturtea

Txingudi Bertso Eskolako taldeak martxan dira

Kabigorriko lehen bertso gaua urriaren 5ean izango da

Urria hastearekin batera, ikasturteko jarduerei heldu die Irunabar Irungo Bertsoaren Bilguneak. Txingudi Bertso Eskola kudeatzeaz gainera, hainbat bertso saio antolatzen ditu urtean zehar, eta eskualdeko mugak gainditzen dituzten ekimenetan ere parte hartzen du.

Bost talde eskaintzen ditu Txingudi Bertso Eskolak. Doakoak dira denak, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak diruz lagunduak baitira. Helduentzako batbateko bertso eskolak hiru taldetan banatu dituzte, parte hartzaileen esperientziaren arabera. Bertsolaritza tailerra ere egongo da, bertsogintza ez ezik (bat-batekoa eta idatzizkoa), bertsolaritzaren eta bertsogintzaren inguruko beste zenbait gai landuko dituena. Aurten, Xanti Zabala "Lexo" (Lezo, 1942-2012) zenaren omenezko kantaldia antolatzea izango da tailerraren ekimen nagusia.

Haurren eta gaztetxoen bertso eskola ere badago, 14 urte arteko hasiberrientzat. Hor dago, hain zuzen ere, Irunabarrek nabaritzen duen hutsune handiena. Ikastetxe askotan bertsolaritza lantzen dute gelan, hamabostean behin, hezkuntza arautuan txertatuta. Eskolaz kanpoko jarduera gisa, berriz, ez da bertsolaritza eskaintzen, gaur egun. "Bigarren Hezkuntzan dago hutsunerik handiena", baieztatu du Aitor Errazkin elkarteko kideak: "Gerora etortzen dira bertso eskolara, etortzekotan. Urte batzuk pasata".

Bertso eskola kudeatzeaz gainera, hainbat bertso saio antolatzen ditu Irunabarrek ikasturtean zehar, Irunen edo eskualdean: Bertso Eskolen eguna, Euskal Jira, Sagardo Egunak, auzoetako jaiak, ikastetxeetako saioak, Moskuko Jaietakoa etab. Azken bost urteetan, Kabigorriko bertso gauak ere antolatu ditu, hilabete bakoitzeko lehen ostegunean. Iaz bezala, Bertso Truk ekimenean parte hartuko du Txingudi Bertso Eskolak, Otxandioko eta Gernika-Lumoko bertso eskolekin, oraingoan. "Saio bat antolatuko dugu guk eskualdean, eta bisita ere egingo diegu haiei", azaldu du Errazkinek.

Irunabarrek proposatutako hitzorduez gainera, beste zenbait bertso emanaldi izaten dira eskualdean, urtean zehar. Batetik bestera, askotan, bertsozalea ezberdina izaten dela azpimarratu du Aitor Errazkinek: "Kabigorriko gauetan, edo uztailaren 1eko bertso saioan egoten den jendea ez da berdina izaten. Hori positiboa da, Bidasoan bertso zaleak badaudela esan nahi du".

Aurten, gainera, zorioneko daude eskualdeko bertso zaleak, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia Irunera helduko baita. Txapelketako finalerdietako bat hartuko du Artaleku kiroldegiak, azaroaren lehenean. Foku mediatiko handia da Euskal Herriko Txapelketa Nagusia, eta interesa erakarriko du. Bertan bertsolaritzak duen presentzia islatzeko ere balio dezan nahi luke Errazkinek: "Txapelketaren asmoetako bat bada, tokiantokian dagoenaren berri ematea".

Bosgarren edizioa izango dute aurten Kabigorriko bertso gauek. Hilabete bakoitzeko lehen ostegunean izango dira, salbuespenak salbuespen, jai egunak direla eta. 2013ko urrian hasi zirenetik, 36 bertso saio burutu dituzte dagoeneko, eta ongi bidean, 45 izango dira aurtengoekin. Bi helburu nagusirekin jaio ziren Kabigorriko bertso gauak: bertako bertsolarientzako plazak eskaintzea, eta beste plaza eredu bat sustatzea. "Asko zaintzen dira saioak, mimatu egiten dira. Gai jartzaileek arreta handia eskaintzen diote bertso saio bakoitza lantzeari", adierazi du Aitor Errazkinek.

Jaialdi txiki formatuko bertso saioak egiteko espazio aproposa da Kabigorri. Aurreko edizioetako formatu berdinari eutsiko dio Irunabarrek, ezustekoentzako tarteren batekin: "Formatu arruntetik aldentzen den baten bat ere egongo da. Iaz saio musikatua egon zen, aurten ere izango da, eta besteren bat ere bai". Harrera ona eskaini diete eskualdeko bertso zaleek Kabigorriko bertso gauei. Ateneoan sortzen den giroari egotzi dio, neurri batean, Errazkinek: "Kanpotik etortzen diren bertsolariek diote oso leku gustagarria dela Kabigorri".

Urriaren 5ean izango da ikasturte honetako lehendabiziko saioa, 19:30etatik aurrera. Unai Agirre hernaniarra, Odei Barroso urruñarra eta Miren Artetxe eta Egoitz Zelaia hendaiarrak ariko dira kantuan. Bertso jarriak, Abel Zabala irundarrak eskainiko ditu, eta Urko Casado astigartarrak egingo ditu aurkezle eta gai-jartzaile lanak.

Irunerorekin elkarlana

Ikasturte berriarekin batera, beste ekimen bati heldu dio Irunabarrek, Irunero aldizkariarekin elkarlanean. Hilean behin, bertso sorta bana idatziko du elkarteko kide batek. Ilusioz hartu dute erronka elkartean: "Antolakuntza bat eskatzen du, konpromiso bat. Baina animatuta gaude, gustura hartu dugu". Gogoratu beharra dago, eskualdeko bertso tradizioaren parte handi bat, tokiko aldizkarietan argitaratutako bertsoei esker jaso izan dela.

1.- HAUR ETA GAZTETXOEN BERTSO ESKOLA (hasi berriak eta 14 urte bitarteko gazteak)
Eguna: asteartea
Ordua: 17:30-19:00
Tokia:Junkal Kalea, 22 (Erromes plaza eta Junkal eliza artean)
Arduraduna: Arkaitz Oiarzabal "Xamoa"
Lehendabiziko eguna: urriak 2

2.- BAT-BATEKO BERTSO ESKOLA I (Adin guztietako hasiberrientzat)
Eguna: asteartea
Ordua: 19:00-20:30
Tokia: Junkal Kalea, 22 (Erromes plaza eta Junkal eliza artean).
Arduraduna: Aitor Errazkin Vicente (685 72 75 39) eta Egoitz Zelaia Perez (669 36 65 89)
Lehendabiziko eguna: urriak 3

3.- BERTSOLARITZA TAILERRA (Adin guztiak):
Eguna: asteartea
Ordua: 19:00-20:30
Tokia: Junkal Kalea, 22 (Erromes plaza eta Junkal eliza artean).
Arduraduna: Aitor Errazkin Vicente (685 72 75 39)
Lehendabiziko eguna: irailak 19

4.- BAT-BATEKO BERTSO ESKOLA II
Eguna: astelehena
Ordua: 18:30-20:00
Tokia: Junkal Kalea, 22 (Erromes plaza eta Junkal eliza artean).
Arduraduna: Egoitz Zelaia Perez (669 36 65 89)
Lehendabiziko eguna: urriak 2

5.- BAT-BATEKO BERTSO ESKOLA III
Eguna: osteguna
Ordua: 19:30-21:30
Tokia: Jaizubiako auzo-elkartea (Hondarribia)
Arduraduna: Abel Zabala Elizazu (690 06 58 26)
Lehendabiziko eguna: irailak 14

Ezkontzen sektorearen erakusleihoa izango da Ficoba

Los Muñecos de la tarta azoka hartuko du, urriaren 14an eta 15ean

Bigarren edizioa edukiko du Los Muñecos de la tarta ezkontza-azokak, urriaren 14an eta 15ean, Ficoba erakustazokan. Sektoreko 22 erakusketari egongo dira bertan, 2018 eta 2019 urteetan ezkontzera doazenei haien produktuak eta zerbitzuak eskainiz. 205 bikote pasa ziren iaz azokatik, eta gehiago espero dituzte aurten. Larunbatean, 11:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Igandean, berriz, 11:00etatik 20:00etara. Doakoa izango da sarrera.

Jeca Hombre, Married Bodas, GB Eventos eta Estudio Gover dira azoka antolatu duten enpresak. Estudio Gover-eko Fernando Vergarak azaldu du nola sortu zen: "Pare bat azoka txiki egin genituen lehenago, Café Irunen, sektoreko erakusketari bakarrarekin. Gustatu zitzaigun, baina konturatu ginen txiki geratzen zitzaigula". Ficoba erakustazokara jo zuten horregatik, eta erakusketari gehiago bilatu zituzten. Irungo Udalaren diru-laguntza ere eskuratu zuten: "Irungo azoka bat delako, eta erakusketari gehienak bertakoak direlako. Hori bai, bildutako diru guztia azokan inbertitu dugu".

Antolatzaileek azpimarratu dute ez dutela dirurik jasotzen, lan horregatik. Beste erakusketariek bezala, azokan bezeroak lortzea dute helburu. Balorazio baikorra egin zuten iaz, eta kritika positiboak jaso zituzten. "Azokaren itxura, alde batetik, polita zela. Bestetik, erakusketariek ez zituztela bisitariak gogaitzen", aipatu du Vergarak. Lehen edizio horretan antzemandako hutsuneak eta akatsak, bigarrenerako konpondu dituzte: "Iazkoa hobetzen ahalegindu gara".

> **"Iazkoa hobetzen ahalegindu gara"**
>
> Fernando Vergara, antolatzailea

Filosofia mantenduko dute

Azoka txikia izaten jarraituko du Los muñecos de la tartak. Sektore bakoitzeko bi erakusketari edukiko dituzte aurten ere, hurbiltzen den jendeak, dagoen guztia denbora laburrean ikusi ahal izan dezan: "Bi lore denda baldin badaude, biak ikusiko dituzte. Sei baldin badaude, ordea, beharbada ez. Hori ona da denentzat". Hogeita bi erakusketari edukiko dituzte aurten, guztira, iaz baino lau gehiago. Berritasunak egongo direla adierazi du Fernando Vergarak: "Bidaia agentzia bat, foodtruck bat eta izozki orga bat edukiko ditugu, azkena, Irungo Papperinoren eskutik". Izan ere, 22 erakusketari horietatik 16, Irungoak dira.

Standen kokapena ere hobetu dutela adierazi du Vergarak. Ez baita pabiloi batean egiten, Ficobako sarreran eta korridoreetan baizik. Iaz bezala, apainketa zainduko dute, baina aurten, giro musika gehituko diote, DJ batekin. Fernando Vergarak azpimarratu du ez dutela modelo desfilerik egingo, uste dutelako arreta aldentzen dutela: "Denbora horretan ez dela inor erakusketarien artean aritzen. Horren ordez, modeloak paseoan ibiliko dira azokatik".

Bisitari gehiago espero dituzte

Publizitate asko egin zuten iaz, bisitariak erakartzeko. Aurten, are inbertsio handiagoa egin dute. Gainera, azokaren asteburuan, Txingudi Onlinek grabatutako irudiak zabalduko dituzte, egun batetik bestera jendea animatzeko. Azokaren irudia, web gunea eta sare sozialak ere zaintzen dituzte. "Gure lanak ditugu denok, baina saiatzen gara sare sozialetan aktiboak izaten", aipatu du Fernando Vergarak.

> **"Modeloak paseoan ibiliko dira azokatik"**
>
> Fernando Vergara, antolatzailea

Iaz, Donostiako Kursaaleko eta Barakaldoko BEC-eko azoken egun berean izan zen Irungoa ere. Aurten ez da horrela izango, ondorioz, bisitari gehiago espero dituzte. Ez dute aurreikuspenik egin nahi, eta iazko kopuruak gainditzea dute helburu. Gipuzkoarrez gainera, Nafarroako eta Iparraldeko bisitariak ere espero dituzte. Vergarak nabarmendu du bisitariek ez dutela sarrerarik ordaindu beharko.

Nerabeen eta familien babesa

Laguntza psikologikoa, soziala, eta hezkuntza arlokoa eskaintzen ditu Gaztedi elkarteak, zailtasunak dituzten gazteentzat eta haien senideentzat

Lan diskretua burutzen du Gaztedi elkarteak Irunen. Nerabeei eta euren familiei zuzendutako laguntza zerbitzua eskaintzen du, arlo psikologikoan, sozialean eta hezkuntza arloan. Olaberria auzoan dute egoitza, Perujaran kalean. Hiriaren erditik aparte samar. Hala ere, kokapen horrek abantailak dituela azpimarratu du Iker Arizala psikologoak: "Egun euritsuetan edo hotzetan hona hurbiltzen denak, konpromisoa erakusten du". Alde guztien ahalegina beharrezkoa baita, nerabezaroarekin lotutako zailtasun handienei aurre egiteko.

Antzeko bi gela daude Gaztediren egoitzan. Idazmahaia eta ordenagailua dituzte albo batean, eta liburuak eta filmak apaletan. Terapiarako txokoan, besaulki erosoak daude, mahai baten inguruan, forma biribilean kokatuta. Mahaiaren gainean, musuzapi kaxatxo bat. "Ezinbestekoak dira, horrelako leku guztietan", zehaztu du Iker Arizalak. Arbela ere badago, eta oso erabilgarria izaten da, kasu bakoitzeko lehenengo saioetan, adibidez. "Genogramaren teknika erabiltzen dugu. Marraztuz, zuhaitz genealogiko moduko bat egitea eskatzen diegu", azaldu du Arizalak: "Informazio pila bat ematen du teknikak, nerabearen familiari eta testuinguruari buruz. Uste baitugu familiako kideen arteko harremanek eragin handia dutela nerabearen egoeran".

2012an iritsi zen Gaztedi Irunera. Lehenago, bertako nerabeek Donostiara edo Errenteriara joan behar izaten zuten, Gaztediren beste egoitzetara. "Irungo kasu asko genituen, gero eta gehiago", argudiatu du Raul Giralde Irungo egoitzako zuzendariak. Gaztedi elkartea, 1994 urtean sortu zen, batez ere, gazte atzerritarren integrazio proiektuei zuzenduta. Gaur egun, zailtasunak dituzten gazteekin lan egiten dute, orokorrean, kasuistika zabal bati erantzunez: limiteen falta, bullying-a, autoestimu falta, doluak, harremanak, indarkeria, drogen kontsumoa, teknologiari adikzioak eta abar luze bat. "Horietako asko, konektatuta egoten dira", adierazi du Iker Arizalak.

12 eta 18 urte arteko gazteekin eta haien familiekin egiten dute lan. Formazio ezberdina duten profesionalen lan bateratuari esker, zerbitzu integrala eskaintzen dute. Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxabank Fundazioaren diru-laguntzek, eta familien ekarpenek mantentzen dute Gaztedi.

Hiru fase dituzte tratamenduek

Ikastetxeekin harreman zuzena dute Gaztedin, eta bide horretatik iristen dira kasuetako asko. Dena den, ahoz-ahokoak ere ondo funtzionatzen duela nabarmendu dute. Nerabeen beraien artean, edo gurasoen artean. Zerbitzuaren erabiltzaileei iaz egindako inkesten arabera, haien %30ek izan du Gaztediren berri ezagunen bidez. Ikastetxeek bideratuta, kasuen %34 iritsi da Gaztedira. Lehen bilera baten ondoren, terapeuta bat esleitzen diote kasu bakoitzari. Zortzi psikologo ari dira gaur egun Irungo Gaztedin. Giraldek aitortu du, askotan gurasoek jarrera baikorragoa edukitzen dutela gazteek baino: "Denborarekin, ordea, neska-mutilen konfiantza eskuratzen dugu".

Hiru fase edukitzen ditu tratamendu bakoitzak. Diagnostikoak 40 eguneko iraupena du. Raul Giraldek azaldu du: "Familiarekin eta gaztearekin hitz egiten dugu. Elkarrizketa horietan ondorioztatzen dugunaz gainera, guk beste helburu batzuk zehazten ditugu. Guztiekin, plana prestatzen dugu. Kasu batzuetan, familiari erakusten diogu, eta sinatu egiten dugu". Bigarren fasea interbentzioa da, bere horretan. Lau hilabeteko iraupena izaten du, eta epe hori bukatzerakoan ez baldin badira helburuak bete, atzera bueltatzen dira berriro. Hirugarren fasea itxiera da, eta hilabete bateko iraupena izaten du. Beraz, tratamenduen iraupena sei hilabetekoa da, batez beste.

Terapeuta batek edukitzen du kasu bakoitzaren gaineko ardura. Hala ere, lankideen iritziak eta aholkuak jasotzen dituzte beti. "Lan talde anitza da, jendearen adinari eta formazioari dagokionez. Horri esker, ekarpen handiak egiten dizkiogu elkarri. Oso aberasgarria da esperientzia", adierazi du Carla Fernandezek. Teknika ezberdinen erabileraren eta arrakastaren berri ematen diote elkarri, adibidez. Iker Arizalak deskribatu ditu batzuk: "Dolu prozesuetan, adibidez, aulki hutsaren teknika, non falta den pertsonari hitz egiten jartzen ditugun. Eskulturen teknika ere adibide ona da: familiako kideak kokatzea eskatzen digu gazteei, haien arteko harremanak eta jarrerak aztertzeko".

"Uste dugu familiako kideen arteko harremanek eragin handia dutela nerabearen egoeran"

Iker Arizala,
Gaztediko psikologoa

“Irungo kasu asko genituen, gero eta gehiago”

Raul Giralde, Irungo Gaztediko zuzendaria

Drogen kontsumo handia antzeman dute

Irunen, Gaztediren beste egoitzekiko alde handiena, drogen kontsumoan nabaritu dute. “Mendekotasun kasu asko iristen zaizkigu. Gainera, beste arazoekin etortzen direnean ere, sarritan, toxikoen kontsumoa erantsi behar izaten zaie”, baieztatu du Raul Giraldek. Adibide gisa, drogen kontsumoarekin lotutako hamabi kasu daramatzate aurten. Bullyingarekin, aldiz, hiru besterik ez. Irungo kopuru handiagoen inguruan galdetuta, bertsio ofizialera jo du, lehenengo, Giraldek: “Mugan dago Irun, eta merkantzien pasabidea izan da betidanik”. Aurrerago, ordea, beste pista bat eman du, bestelako erantzukizunak eransten dituena: “Donostian, adibidez, gazteek ezkutuan kontsumitzen dute. Irunen, ikastetxeetako atean egon daitezke, eta kasu batzuetan, patioetan ere bai”. Kalamua da nerabeek kontsumitzen dituzten drogen ehuneko handiena. “Alkoholismo kasu bat ere eduki dut, hamasei urterekin”, erantzi su Raul Giraldek.

Kasu batzuk kudeatzea gogorra izaten dela onartu du Iker Arizalak: “Egia da denborarekin pixka bat immunizatu egiten zarela. Baina hala ere, pertsona zara, emozioekin lan egiten duzu, eta batzuetan, familien errealitateek inpaktu handia eragiten dute”. Halako arazo larriak gainditua, momentu atseginenak tratamenduen itxieretan izaten dituela aipatu du: “Familiek esaten dizutenean jada ez dutela etortzeko beharrik”. Carla Fernandez lankidea ere ados dago, eta gaineratu du, familiekin konektatzeak, haien konfiantza lortzeak, asebete egiten duela. 36 familiaren kasuak landu zituen Irungo Gaztedik 2012an, Irungoez gainera, Hondarribikoak, Hendaiakoak eta Berakoak erantsita, besteak beste. Iaz, 77 izan ziren, eta aurten 51 daramatza jada. Kopuru handia, kontuan hartuta kasu gehienak, azaroa-abendua epean sartzen direla. 2013az geroztik, lan gehien duena da Irungoa, Gaztediren bost egoitzen artean.

XABIER VELASCO, Hondarribia Arraun Elkarteko arraunlaria:

“Traineruan sartu garen bakoitzean, saiatu gara presioa lehorrean uzten”

Argazkia: Estudio Gover

Bukatu da 2017ko arraun denboraldia, eta atseden garaia da arraun elkarteetan. Lehiaren ondorengo beroaldia pasata, hotzean balorazioak egiteko momentua ere bada. Xabier Velascok (Irun, 1991) lehen esperientzia izan du Eusko Label Ligan, Hondarribia Arraun Elkarteko talde nagusian. Pasaian lortu zuen goi mailako lehen bandera, uztailaren 23an, harrobiko hamar arraunlari zeramatzan traineru batean. Beste bost bandera astindu ditu aurten Hondarribiak, baina uzta ez da nahikoa zale zorrotzenentzat, ligak eta Kontxak, ihes egin baitute.

Bermeoko banderarekin borobildu duzue sasoiko uzta. Nolakoa izan da amaiera?
Ez dugu amorerik eman. Dena eman dugu, eta azkeneko paladara arte borrokatu dugu. Kontxan jipoia jaso genuen, baina Bermeoko banderarekin buelta eman genion, eta pozik amaitu dugu.

Momentu erabakigarrietan zortea ez duzue aldeko izan. Ez Kontxako bigarren igandean, ezta Portugaleteko azken jardunaldian ere.
Nahiz eta lana ondo egin, beti behar izaten da zorte apur bat. Portugaleten, badakigu kaleen arteko aldea handia dela, eta okerrena egokitu zitzaigun. Donostian ere, itsasoaren egoera zein zen kontuan izanda, gurea ez zuen inork nahi.

Zenbaterainoko eragina du kaleak?
Zaila da esaten, zehatz-mehatz ezin daiteke jakin. Faktore asko daude, alde batetik haizea, bestetik korrontea. Denak kontra dituzunean, zaila izaten da lehiakorra izatea.

Zaleak garaipenetara ohituta dituzue, eta ematen du Kontxa edo liga irabazi gabe, denboraldia hankamotz geratzen dela. Zein balorazio egin duzue zuek?
Emaitzei dagokienez, positiboa, sei garaipen lortu ditugu. Eta egindako lana kontuan hartzen baldin badugu, are positiboagoa da balorazioa. Estropada guztietan, kalerik okerrena genuela jakin dugunetan ere, dena ematera atera gara. Gure lanarekin gustura gelditu gara.

Lehia estu-estua izan da hiru traineru onenen artean. Presioa sentitu duzue?
Egia da hasiera-hasieratik lehia handia izan dela, baina saiatu gara traineruan sartu garen bakoitzean, presioa lehorrean uzten, urtetara ahalik eta zama gutxienarekin ateratzeko.

Zure lehen esperientzia izan da goi mailan, Eusko Label Ligan. Jauzi handia izan da?
Badago diferentzia, zalantzarik gabe, baina azkenean, kirola berdina da. Egia da helburuak beste maila batekoak direla, eta beste oihartzun bat dutela.

Aurten eman duzu lehen trainerurako urratsa, 26 urterekin. Uste zenuen aukera iritsiko zitzaizula?
Ez nuen buruan, ez nuen hori espero. Urtetik-urtera, helburu txikiak jarri izan ditut, eta pixkanaka egin dut gora. Pozik nago, maila handiko arraunlarien parean ikusten dudalako nire burua. Izen handiak daude Ama Guadalupekoan.

Nolakoa da haiekin arraunean aritzea?
Neguan denok elkarrekin ateratzen gara, beraz, haiekin arraun egitea ez da berria izan. Gero, udara hurbilduz doanean, entrenamenduak ezberdinak izaten dira. Nabaritzen duzu trainerua oso azkar doala, eta ez dela harrobiko ontzia.

Ez zara txikitatik arraunean ibili. Eskubaloian jokatutakoa zara, Bidasoan. Zergatik egin zenuen aldaketa?
Oso gustura ibili nintzen eskubaloian. Ikasketekin, ordea, kostata eutsi nion, azkenean utzi egin behar izan nuen. Beranduago, arraunean probatzeko ilusioa sartu zitzaidan. Gertu daukagu, udaran estropadak ikusten ditugu, eta familian zaletasun handia dago.

Aurtengo zein momenturekin gelditu zinateke?
Pasaian irabazitako lehen bandera hautatuko nuke. Aurretik, harrobiarekin estropadak eta liga bat ere irabazi nituen, baina TKE ligan, arraunlari ezagunen artean aritzeak, eta gainera irabazteak, sekulako poza ematen du.

Hilabete batez arrauna alde batera utziko duzue orain. Zer egingo duzu?
Beste zaletasun batzuei eskainiko diet denbora, modu horretan, burua pixka bat deskantsatzeko. Ondoren, pilak kargatuta, gogoz itzuliko gara.

Nazioarteko lehia jokatuko du Real Unionek

Derby County taldea hartuko dute txuribeltzek, Steve Bloomer Txapelketaren lehen edizioan

Lagunarteko txapelketa antolatu dute Real Unionek eta Derby County futbol elkarte ingelesak, Stephen Bloomer (1874-1938) futbol jokalari eta entrenatzailearen lotura baliatuta. Derbyko mitoa da Bloomer, eta Real Unioneko entrenatzaile ere izan zen. Berak zuzendu zuen taldea, 1924ko Errege Kopa irabazi zuenean, hain zuzen ere. Urriaren 3an (20:00) neurtuko dituzte indarrak Real Unionek, eta Championship ligan, Ingalaterrako bigarren mailan ari den Derby County taldeak.

Futboleko lehen izarretako bat izan zen Steve Bloomer, XIX.mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran. Ingalaterrako ligako goleatzaile nagusietako bat da, oraindik ere, 317 gol sartu baitzituen 536 partidatan. Bost aldiz izan zen ligako goleatzaile nagusi. Ingalaterrako selekzioarekin, 28 gol egin zituen 23 neurketatan. Bere bihotzeko taldeko entrenatzaile izan zen, beranduago. Derby Countyko ikurra da, Steve Bloomer's watching baita klubaren ereserkiaren izenburua.

Real Union taldea ere zuzendu zuen Bloomerrek. Hortxe bi elkarteen arteko lotura. 1923an iritsi zen, Irungo taldearen urrezko aroan. “San Esteban” ezizena jarri zioten Irungo zaleek, izan ere, 1924an, Espainiako Txapelketa, egungo Errege Kopa irabazi zuen Unionekin, Real Madrilen aurkako finala irabazita, Donostiako Atotxa futbol zelaian (1-0). Final hartan, beltzez jokatu zuen Real Unionek, jokalarietako baten senide bat zendu berria zelako. Xehetasun haren oroigarri, beltzez jokatuko du Unionek Steve Bloomer txapelketa.

Koloreen harira, Bloomerrena ez da bi taldeen arteko lotura bakarra, elastiko zuria eta galtza beltzak erabiltzen baititu Derby Countyk. Aharien elkartea (The Rams da Derby Countyren ezizena) 1884an sortu zen, Derby hirian, Derbyshire eskualdean. Bi aldiz irabazi du Ingalaterrako liga nagusia, 1972 eta 1975 urteetan, Brian Clough entrenatzaile famatuaren eskutik. Kopa eta Superkopa ere irabazitakoa da. Gaur egun, Championship ligan, Ingalaterrako bigarren mailan jokatzen du. Alabaina, bigarren mailan egonik ere, 31.000 bazkide ditu, eta Pride Park-en, 33.000 ikuslerentzako tokia duen futbol zelaian jokatzen ditu partidak.

Harremanaren sorrera

Steve Bloomer Txapelketaren garrantzia azpimarratu du Ricardo García Real Unioneko presidenteak: “Gure historiarekin lotzen gaituen ekimena da. Hor daukagu, eta balioa eman behar zaio”. Batzuetan, alabaina, historian arakatu beharra dago. Iñaki Alberdi zuzendaritzako kideak azaldu du “sare sozialen bidez” izan zutela Steve Bloomerren berri: “Pixka bat ikertuz, historia harrigarri honekin egin genuen topo”.

Derby Countyrekin harremanetan jarri ziren, eta erantzuna oso-oso baikorra izan zen, garrantzi ikaragarria baitu bertan Steve Bloomerren figurak. Aurtengo txapelketa antolatzea lehen urratsa izan da, baina kluben arteko harremanek luzaroan iraun dezaten nahi lukete. Datorren urtean Real Unionek Derbyra bisita egitea mahai gainean egon da, baina Ricardo Garcíak aurreratu du elkarteak ezin duela kostu hori bere gain hartu. Nolanahi ere, harremanak kirol arlokoak ere izan daitezen nahi luke Eneko Romo kirol zuzendariak: “Haiek jokalariren bat utzi ahal izatea, adibidez”. Ingalaterrako filialen lehen ligan du Derbyk bigarren taldea.

Txapelketaren lehen edizioa

Momentuz, Steve Bloomer Txapelketaren lehen edizioak hitzordua du, urriaren 3an 20:00etan, Stadium Galen. Partida lehiatua izan dadin nahi lukete bi elkarteek. “Lau aldaketa egin ahal izango dira. Ez genuen lagunarteko soil bat burutu nahi, hamar alda ketarekin”, argudiatu du Eneko Romok. Garaikurra egongo da jokoan, 1924ko Espainiako Txapelketaren erreplika.

Derby Countyk protokolo zehatza ezarri du, besteak beste, Rams TV telebistaren bidez zuzenean emango duelako norgehiagoka. Data txarra dela aitortu du Iñaki Alberdik, eta hurrengo baterako, udaran antolatzen saiatuko direla: “Modu horretan, Ingalaterrako zale gehiago etorriko lirateke”. Bakar batzuk espero dituzte, dena den. Irungo eta inguruko zaleei dagokienez, bazkideak doan sartu ahal izango dira, eta bazkide ez direnek, 5, 10 eta 15 euro arteko sarrera ordaindu beharko dute. “Galek itxura ona izan dezan nahi genuke”, adierazi du Garcíak. 18:30etan, partidaren aurretik, talde guztien aurkezpena egingo du klubak.

Emaitza onak ligaren hasieran

Indartsu ekin dio Real Unionek aurtengo ligari. Emaitzei dagokienez, bederen, jokoak ez baitu distira handirik izan. Hala ere, talde sendoa eta eraginkorra da txuribeltza. Lau garaipen lortu ditu lehen zazpi jardunaldietan, eta multzoaren buruko taldean dago. Bosgarren da, 13 punturekin. Aldaketa handirik ez da izan, jokalariei dagokienez, eta entrenatzailea ere, iazko berdina da, Asier Santana idiazabaldarra. “Sentsazio onak transmititu ditu taldeak, partida onak egin ditu”, adierazi du, ligako lehen hitzorduei buruz. Entrenatzailearekin ados dago Eneko Romo kirol zuzendaria ere: “Hasierak beti izaten dira zailak, baina nik uste dut oso txukun ari garela, jardunaldi gehienetan izan garela partiden jabe”. Aurrera pausoak ematen jarraitzeko aukera ona izango da Derby Countyren kontrakoa, maila handiagoko taldea baita.

LOS MUÑECOS DE LA TARTA

II EZKONTZA AZOKA

URRIAK 14-15

www.losmunecosdelatarta.com

laguntzaileak:

ALDABALDETREKU Sastrería

Belleza Nupcial & Maquillaje

ArteSucre

EVA PASCUAL

El Baúl de Cleo

EGUZKI boda

Le Clic Fotomatón para bodas

JECA JECA JECA Novias

Floristería Dana

NOAOA BIDAIAK

DIEZ S.A. Autocares

GB EVENTOS

Joyería LUCCA Relojería

MARRIED novias

Huellas ZAPATERÍA

SINGULAR

PAPPERINO

Gover

Son&Djs Sonido y Deejays profesionales

Los Dalton

Julia Tellechea

FICOBA

bidaShop

irun on

Toki Alai LH1

EUSKARAZKO IPUIN LABURREN LEHIAKETA:

MIMIKO ZAPATARIA

BEHIN BATEN XAGU BAT MIMIKO IZENA ZUENA. MIMIKO ZAPATARIAREKIN BIZIZEN, EGUN OSOA ZAPATAK KONPONTZEN EGOTEN ZEN. HORRENBESTE LAN EGITEAZ ASPERTU ZEN ETA ZAPATA HEGALARIA EGIN ZUEN. EGUN BATEAN MIMIKOK ZAPATA EGALARIA HARTU ZUEN ETA HEGAN XAGUEN HERRIRA JOAN ZEN. ETA HAN POZPOZIK BIZI IZAN ZEN.



IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

TURISMOA

Bertsoak: Abel Zabala
Doinua: Henry Millerri eskutitza
(Xabier Lete eta Karlos Gimenez)

1-Udara joan zaigun honetan
udazkena ere badator
egunak eta hilabeteak
joaten baitira bizkor
turismoaren uholde latzak
astindu gaitu gogor
eta iritzia ematera
bertso hauekin nator,

2-Turistak gora turistak behera
sortu duten harrabotsa
udara berotik joan zaigu
astindu dugu hotza
batzuentzat zer negozioa
zer nolako pagotxa
"guiri"en karterak hustu eta
bete baitute poltsa.

3-Turistak errentagarritasun
ona omen dakar berez
beso zabalik hartu behar dira
ta tratatu gizalegez
langileari galdetu behar
nagusiari ordez
prezioak igotzen dituzte
baina soldatarik ez.

4-Bat erraz konturatu daiteke
joan ezkero Donostira
edozein denda ta tabernetan
inglesak duen distira
euskara hizkuntzaren zerrendan
azkeneko tokira
gure nortasuna indartzeko
lantegi txarrak dira.

5-Turismoak berdin kolpatzen du
herria edo hiria
izan daiteke Donosti, Zarautz,
Biarritz, Hondarribia
pisuen espekulazioa
da beste aurpegia
alokatzea edo erostea
nolako miraria.

6-Turismo mota honek begira
zer kalte ekartzen duen
adibide batzuk plazaratzen
behintzat saiatu naiz hemen
ereduaren hausnarketa bat
eskatzen dut bederen
neurriak hartu behar baitira
berandu baino lehen.

El Pilar DBH3

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Go!azenen errepikatuko du Asier Burguete aktoreak

EITBko telesailak bigarren denboraldia estreinatuko du aurten

Go!azen telesailean egindako aktore lanagatik ezagun egin da Asier Burguete. Etxeko txikienek Markel izenez ezagutzen dute, eta haren broma eta hanka-sartzeek barre ugari eragiten dituzte. Lehenengo denboraldiaren arrakastaz jabetu ostean, udara honetan Go!azen telesailaren grabaketetan murgildurik ibili dira telesaileko aktoreak eta jada bigarren denboraldia estreinatzeko prest dago.

Nor da Asier Burguete?
Asier Burguete 19 urteko Irungo gazte bat da, Santiago auzoan jaiotakoa. Txikitatik saltsa guztietan sartua ibili den pertsona bat izan da, bai kultur elkarteetan zein Irungo Kontserbatorioan baleta ikasten, edo antzerki taldeetan sartuta.

Nola lortu zenuen Go!azen telesaileko aktore bihurtzea?
Hamaika urte eman ditut baleta ikasten eta baleteko irakasleak telesail honen castingaren berri ematen zuen kartel bat ipini zuen entsegu-gelan . Orduan, lehiaketara bideo bat bidali nuen eta, ondoren, EITBn beste casting bat egiteko deitu zidaten. Casting honetan proba desberdinak egin ostean, aukeratua izan nintzen.

Telebistan lan egiteak ez zizun beldurrik ematen?
Hasieran bai. Lehen grabaketara iritsi nintzenean pentsatzen nuen bi kamera eta mikrofonoa egongo zirela bakarrik. Noski, hau ez zen horrela izan. Azkenean 60 pertsonako talde bat, produkziokoak, lau kamera eta ez dakit zenbat mikrofonorekin topo egin nuelako. Pasada bat da, jende pila bat dagoelako telesail honen atzetik eta hori eskertzekoa da.

Telesailerako dantzatzen eta abesten jakitea ezinbestekoa da. Nola moldatu zara arlo hauetan?
Dantzan oso ondo eta abesten pixka bat okerrago. Lagun talde on bat osatu dugu eta bertan badira abesten hobeto moldatzen direnak edo dantzatzea nahiago dutenak. Orduan, nik beraiei laguntzen diet dantza pausoak fintzen, eta haiek niri notak nola egin erakusten didate. Azkenean, denen laguntzarekin dena ondo atera da.

Telesaileko aktoreen artean lagun talde ona osatu duzue?
Bai, oso ederra. Lehenengo denboraldikoak bezala, bigarren denboraldi honetako grabaketak primeran joan dira. Guztiak gara adin tarte berekoak eta lagunekin egotea bezalakoa da.

Nolakoa izan da bigarren denboraldiaren grabaketa?
Bigarren denboraldiaren grabaketekin ekainaren 20ean hasi ginen eta abuztuaren 25ean bukatu dugu, beraz, udara osoa grabatzen eman dugu. Grabaketa gogor samarra da, goizeko 7:00etatik arratsaldeko 19:00etara grabatzen gaudelako etengabe. Gainera, mundu guztia udaraz eta oporrez disfrutatzen ikusteak inbidia ematen du. Baina, azkenean, Go!azenekin ume guztiak poz-pozik ikustea oso polita da.

Erraza da aktore lanak eta horrek dakartzan konpromisoak ikasketekin uztartzea?
Adibidez, lehengo urtean telesaila bukatu genuenean Euskal Herri osoan zehar antzerkiarekin bira bat antolatu genuen eta honek asteburu guztietan emanaldiak burutzea eta batzuetan ohera beranduago sartzea eskatzen du. Baina bueno, goizetan burua ikasketetan sarturik zegoen eta arratsaldean denbora guztian Go!Azenen.

Telesailean antzezten duzun pertsonaiarekin antza duzula esango zenuke?
Markelekin antza handia dut, ia berdinak garelako. Egia da pertsonaia denbora guztian barrezka ari dela eta etengabe dabilela txorakeriak egiten eta ni ere horrelakoa naiz. Horregatik, Markel eta ni oso ondo eramaten gara.

Bigarren denboraldi honetan Markel asko aldatuko da?
Antzekoa izango da, nahiz eta gauza batzuk aldatuko diren. Oraindik ez dakigu ligatuko duen edo ez, hori aurrerago ikusi beharko dugu. Baina, nahiz eta aldaketa pare bat gertatu, bere saltsan jarraituko du.

LarruSketch-ekin kolaborazio bat burutu duzu ezta?
Bai, Beñatek proposatu zigun Pixkanaka abestiaren bideoklipean agertzea. Oso gustura onartu nuen gonbidapena, zerbait desberdina egiteko gogoak neuzkalako. Grabaketan oso gustura ibili naiz ere eta errepikatzeko modukoa izan da.

Etorkizunari begira zeure burua telebistan lanean ikusten al duzu?
Telebista baino, nire burua antzerki munduan ikusten dut gehiago. Adibidez, musikal batean edo horrelako zerbaitetan. Telebistan ere bai, zergatik ez, baina egia da antzerkian erosoago nagoela.

Argazkia: Estudio Gover

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Bulegoko ordutegia neguan

Urriaren 2tik aurrera, IGazten neguko ordutegian izango gaituzue:

Astelehenetik ostiralera
11:00etatik 13:30etara.

Astelehenetan eta asteazkenetan
17:00etatik 19:30etara.

Hori bai, gogoan har ezazu gure ateak interneten egunero-egunero 24 orduz irekita dudela!

Bidal ezazu posta bat zure zalantzarekin, iradokizunarekin edo informazio eskariarekin.

Posta elektronikoz: igazte@irun.org;
WhatsApp bidez: 607 771 173.
Telefonoz: 943 50 54 40.

Kamiseta bat diseinatu eta bidaia bat irabazi Europan zehar!

Time to Move 2018 kanpainaren kamiseta ofiziala diseinatzeko lehiaketan parte hartu eta bidaiatzen hasteko sariak irabaz itzazu!

Time to Move Gazteen Nazioarteko Mugikortasuna sustatzeko kanpaina bat da, Europa osotik ekitaldiak antolatuz.

Diseinu kreatibo, interesgarri eta inspiratzaileenak kontutan hartuko dira eta kanpainaren oinarriak irudikatzen dituztenak.

Betebeharrak: 13-30 urte bitartekoa izatea.

Teknika: Librea.

Sariak:
- 1go saria: Interrail Pass (Interrail txartela).
- 2. Saria: Eastpack eskuko maletak
- 3. Saria: 6 hilabeteko harpidetza Spotify-n
- 4. Saria (bozketa publikoa): Fjällräven motxila.

Epea: Urriak 31.

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte.

Irungo Gazte Boluntariotza Zerbitzua

Ba al dakizu zenbat aukera dituzun?

- Adineko pertsonekin.

- Kultur artekotasuna eta inmigrazioa arloan.

- Adin txikikoekin.

- Dibertsitate funtzionala duten pertsonekin.

- Gaixotasunaren arloan

- Bazterkeria egoeran (edo arriskuan) dauden pertsonekin.

- Garapenerako lankidetza.

- Ingurumenaren arloan.

- Babes zibila / Larrialdiak.

Ordutegia:
Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 16:30etik 19:00etara.

Astearte eta osteguenean: 09:00etatik 14:00etara.

Irungo Gazte Boluntariotza Zerbitzua CBA gunea, San Juan plaza, z/g (IGazte) - gazteboluntariotza@irun.org - Telefonoa: 943 505 440.

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 669 408 705
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK LASAITASUN OSOZ. KONTSULTATU!!

URRIAK

4

Zer?
Kontu kontari haurrentzat: "BAOBAB ZUHAITZA".

Ordua?
17:30etan.

Non?
CBA Udal Liburutegian.

Prezioa? Doan.

4

Zer?
Bidasoako kortsarioen historiaren hitzaldia Koldo Ortegaren eskutik (Esperientziaren Eskolako irakaslea).

Non?
Argoiak-en egoitzan. Bertsolari Uztapide, 6.

Ordua?
17:00tan.

Antolatzailea?
Argoiak.

4

Zer?
"CONOCER LA ENFERMEDAD ALZHEIMER" Hitzaldia.

Moderatzailea: Maria Jesús Garín - AFAGIko ordezkaria.

Hizlaria: Alazne Gabilondo - Neurologoa.

Non?
Amaia KZn.

Ordua? 17:00etan.

Non? Amaia KZn.

5

Zer?
Zure abenturaren bila "El desierto de Libia". Libiako basamortuaren ikuspegi bat. Hondar asko eta bero eta edertasun handia.

Egilea?
Iñaki Caperochipi.

Hizkuntza? Gaztelaraz.

Iraupena? 50 min.

Ordua? 19:30etan.

Non? Amaia KZN.

6

7

8

XXXIV Landetxako aste kulturala

Ostirala 6:
- 17:30: Aoki Bioenergia-Ate irekiak.
- 17:00: Ipuin Kontalaria AEn (4-8 urte).
- 19:30: Zineforum: "La esvástica del Bidasoa" AEn.
- 20:00: Lee Juniorren kontzertua Bar Nuevon.

Larunbata 7:
- 09:00: Karate erakustaldia Eskola zaharrean.
- 11:30: Puzgarriak Frontoian (euria egiten badu bertan behera geltituko da).
- 12:00: Elkarteen pintxoak Frontoian.
- 13:30: Omenaldia: Landetxako Errealaren lagunak Frontoian.
- 16:30: Puzgarriak Frontoian (euria egiten badu bertan behera geltituko da).
- 17:00: Eskulanak Frontoian.
- 18:00: Entzierro txikia Frontoian.
- 18:00: Zumba auzotik.
- 18:30: Buruhandiak Frontoian.
- 22:00: Zineforum "Juegos del Hambre" Auzo Elkartean.

Igandea 8:
- 11:30: Esku Pilota Frontoian.
- 12:00: Aspaldiko jolasak Frontoian.
- 12:00: Toka Frontoian.
- 17:00: Zineforum txiki Auzo elkartean.

urriaren 5etik-14ra

"RI8ERA" proiektua

Zer:
"RI8ERA" erakusketa.
.

Ordutegia: 10:30-13:30 eta 15:00-20:00.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Oharra: Proiektuaren aurkezpena, urriaren 5ean, 18:00etatik 20:00etara, CBAn.

azaroak 22ra arte

"A fuego lento" argazki erakusketa

Zer: Alvaro Del Val Tobalinaren "A fuego lento" argazki erakusketa.

Non: Caser Anakan, Anaka kalea 8.

Ordutegia:
- Astelenetik ostiralera: 8:00-20:00; Larunbatak, igandeak eta jai egunak: 10:00-20:00.

Telefonoa:
943667780

Prezioa: Doan.

azaroak 30era arte

Antonio Valverderen eraskusketa

Zer: Antonio Valverde "Ayalde" (1915-1970) erakusketak diziplina anitzeko artista horren irudia eta Irun hiriarekin lotutako bere obra berreskuratu nahi ditu. Inprimatzailea, margolaria, ilustratzailea, idazlea eta kultur dinamizatzailea izan zen Antonio Valverde.

Ordutegia:
Asteartetik larunbatera 18:00-21:00 / Igandetan eta jaiegunetan 11:30-13.30.

Non:
Amaia KZn.

Prezioa: Doan.

bertako

igogailuak | ascensores

igogailuen mantentzen-lanak

24 orduko
benetako zerbitzua

24 365 7

Pieza guztiak barne
100 eurotik aurrera

Euskarazko
zerbitzu profesionala

EMERGENTZIA-TELEFONOA DOAN
LED ARGIEN ITZALTZE AUTOMATIKOA KABINAN
IRAUPEN-KONPROMISO GABE

ESKATU AURREKONTUA

www.bertako.eus
info@bertako.eus
691 64 79 65